



# Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarriak

2021eko irailaren 9a

*Euskadi, auzolana, bien comin*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# Edukiak

1. Ezaugarri orokorrak
2. Berrikuntza nagusiak
3. Finantza-neurriak jaso ditzaketen jarduera-lerroak
4. Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezia
5. Laguntzak jasotzeko betekizun nagusiak
6. Finantza-neurrien arteko bateragarritasuna. Baita beste laguntza batzuekin ere
7. Nola eskatu laguntzak




# Ezaugarri orokorrak

Birgaitze-jarduera ikuspegi integral bat ezarrita bultzatzen du, epe ertain eta luzerako eredu jasangarriekin:

- Energia-efizientzia hobetzearen eta energia-iturri berriztagarriak integratzearen aldeko apustua
- Eraikinen bizigarritasuna, irisgarritasuna, kontserbazioa, erabilera-segurtasuna eta digitalizazioa hobetzearen aldeko apustua.

Kontuan hartzen ditu Next Generation EU Batasunaren berreskuratze-tresna eta 2021-2027 aldirako Batasunaren urte anitzeko finantza-esparrua.

## SINPLIFIKAZIOA



1. Partikularren obrak: eraikinen eta familia bakarreko etxebizitzaren elementu pribatiboak
2. Erkidegoen obrak: elementu komunitario esku-hartzeak
3. Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obrak eraikinetan



## APUSTU ESTRATEGIKOA

Arau bakar bat, bizitegi-eraikinei eragiten dieten programa guztiak jasotzeko.



## HIRU OBRA MOTA

# Berrikuntza nagusiak

1

Handitu egin dira laguntza publikoen zenbatekoak eta diru-sarrereren mugak, pertsona gehiagorengana iristeko.

2

Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi berria, 65 urtetik gorakoentzat eta/edo desgaitasuna dutenentzat, eta 12.000 € arteko urteko diru-sarrera haztatuak dituzten bizikidetzak unitateentzat.

3

Maileguen % 100 dago eskuragarri, eta edozein unetan xedatu ahal izango da, jarduketa babestua aitortzen duen administrazio-ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

4

Jabeen erkidegoek maileguak eskatu ahal izango dituzte.

5

Birgaitze integratuko aretarako eta area degradatueterako ezarritako finantza-neurrien araubidea Lehenetasunezko Jarduketa Eremuetan (LJE) sartutako udalerrietan egiten direnei aplikatuko zaie. Onuren luzapenak zortzi urteko indarraldia izango du, agindua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

# Finantza-neurriak jaso ditzaketen jarduera-lerroak

<b>1. lerroa. Partikularren obrak</b>			
1. mota. Kontserbazioa eta bizigarritasuna	2. mota. Energia-efizientzia hobetzea	3. mota. Irisgarritasuna hobetzea	4. mota. Eraikuntza egokiaren printzipioetara egokitzea
<b>2. lerroa. Erkidegoen obrak</b>			
1. mota. Kontserbazioa, segurtasuna eta bizigarritasuna	2. mota. Energia-efizientzia hobetzea	3. mota. Irisgarritasuna hobetzea	
<b>3. lerroa. Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obrak</b>			
<p>Irismen orokorreko obrak. Horien barruan sartzen dira, batera eta aldi berean, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta suteetatik babesteko segurtasuna, etxebizitza-erabilera nagusia duen bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin oso batena gutxienez.</p> <p>Kanpoko bizigarritasuna hobetzeko obrak ere jaso ahal izango dituzte.</p>			

# Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezia



**Onuradunak**

65 urtetik gorakoak eta mugikortasun murriztua edo sentsoriala duten pertsonak, beren bizikidetzak unitateekin batera, eta, gainera, 12.000 €-tik beherako urteko diru-sarrerak haztatuak dituzten bizikidetzak unitateak.



**Helburua**

Itzuli beharrik gabeko laguntzek estaltzen ez duten irisgarritasunari egotz dakiokeen eta etxebizitzaren titularrek edo okupatzaileek ordaindu behar duten aurrekontu babesgarriaren % 100era arteko ehunekoa ordaintzea. Aplikatu beharreko ehunekoa urteko familia-errenta haztatuaren eta bizikidetzak unitateko kideen kopuruaren arabera izango da.



**Eskaera**

Lerro hori jasotzeko eskaera espresua izan beharko da, eta finantza-neurriak eskatzen diren unean egin beharko da, irisgarritasun-obren aurrekontua gainerako jarduketak babesgarrien aurrekontutik bereizita.

# Laguntzak jasotzeko betekizun nagusiak

## 1, LERROA.PARTIKULARREN OBRAK

### 1 ONURADUNAK

Pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, ondasun-erkidegoak edo beste unitate ekonomiko edo ondare bereizi batzuk, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, baldin eta jabeak, errentariak, gozamedunak edo familia bakarreko etxebizitza edo birgaitu beharreko elementuaren elementu pribatiboak erabiltzeko eta aprobetxatzeko beste eskubide baten titularrak badira.

### 2 ETXEBIZITZA

Etxebizitza laguntza eskatzen duen pertsonaren, pertsonen edo erakunde eskatzaileko kideen ohikoa eta iraunkorra izan behar da, edo obra ziurtatzen den egunetik zenbatzen hasita 3 hilabeteko epean hala izango dena.

Jarduketak jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexuko erregimeneko eraikinetako elementu pribatiboetan eta familia bakarreko etxebizitzetan egin ahal izango dira, bai etxebizitzatan, bai etxebizitzatarako diren lokaletan. 20 urtetik gorako antzintasuna izan beharko dute, eta ez da eskatuko aldeztatik EIT egin izana, legeztatik eska daitezkeen kasuetan izan ezik. Obra-lizentzia behar da.

### 3 DIRU-SARRERAK

Urteko diru-sarrerera haztatuak eskatzen dira: gehienez 39.000 € (maileguak) eta 25.000 € (itzuli beharrik gabeko laguntzak eta interes-tasetarako subsidioa).

### 4 AURREKONTU BABESGARRIA

Gutxieneko aurrekontu babesgarriak 3.000 €-tik gorakoa izan beharko du. Gehieneko azalera erabilgarri konputagarriari esku-hartzea egingo den udalerriko erregimen orokorreko BOEen gehieneko prezioen sisteman indarrean dagoen prezioa/m<sup>2</sup> erabilgarria aplikatzearen emaitza izango da gehienekoa.

### 5 OBREN AMAIERA

Baiespen-ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere urtebeteko epean amaitu beharko dira jarduketak.



# Laguntzak jasotzeko betekizun nagusiak

## 2. LERROA. ERKIDEGOEN OBRAK

### 1 ONURADUNAK

Birgaitu beharreko eraikinaren jabe bakarrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, ondasun-erkidegoak edo beste unitate ekonomiko edo ondare bereizi batzuk, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan.

Jabeen erkidegoak, behar bezala ordezkaturak.

Eraikinen eraikuntza-enpresak, zerbitzu-enpresak, errentariak eta emakidadunak, birgaitze-jarduketak egiteko ahalmena dutenak.

Pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, ondasun-erkidegoak edo beste unitate ekonomiko edo ondare bereizi batzuk, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, jabeak, errentariak, gozamedunak edo birgaitu beharreko eraikinaren elementu pribatiboak (etxebizitzak zein lokalak) erabiltzeko eta aprobetxatzeko beste eskubide baten titularrak, betiere obrak ordaintzean dagokien kuotarekin parte hartzen badute. 1. lerroko titularrentzat ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

### 2 ETXEBIZITZA

Nagusiki etxebizitza-erabilera duten eraikinak. Beste erabilera batzuetara bideratutako solairu osoak dituzten eraikinetan, finantza-neurriak etxebizitzetara edo etxebizitzetara bideratutako lokalei dagozkien jarduketetara soilik aplikatuko zaizkie.

EIT egin beharko da eskaera formalizatu aurretik. Halaber, bertan identifikatutako patologiak zuzendu izana eta Erabilera eta Mantentze Plana edukitzea, emandako dirulaguntza likidatu aurretik.

20 urtetik gorako antzintasuna. Obretarako udal-lizentzia behar da.

Birgaitu beharreko eraikinean elementu pribatibo bat baino gehiago izanez gero, 1. edo 2. lerroko neurrietara jo ahal izango da, horietako bati dagokionez bakarrik.

### 3 DIRU-SARRERAK

Ez dago diru-sarreraren mugarik erkidegoaren obretarako. Urteko diru-sarrera haztatuak dituzten jabeek, gehienez 39.000 € (maileguak) eta 25.000 € (itzuli beharrik gabeko dirulaguntza indibidualak eta interes-tasen subsidioa), laguntza gehigarriak dituzte erkidegoaren obren ondorioz sortzen diren derramei aurre egiteko.

### 4 AURREKONTU BABESGARRIA

Gutxieneko aurrekontu babesgarriak 3.000 €-tik gorakoa izan beharko du etxebizitza edo lokal bakoitzeko. Irisgarritasuna sustatzeko obrek ez dute gutxieneko mugarik.

### 5 OBREN AMAIERA

Baiespen-ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere 18 hilabeteko epean amaitu beharko dira jarduketak.





# Laguntzak jasotzeko betekizun nagusiak

## 3. LERROA. BIRGAITZE INTEGRAL ETA EFIZIENTERAKO ERKIDEGOEN OBRAK

### 1 ONURADUNAK

Laguntza-lerro honen eremukoak diren eta jarduketak beren kontura egiten dituzten jabeen erkidegoak.

Udalak, toki-erakunde txikiak, etxebizitza-sozietate publikoak, etxebizitza-sustatzaile publikoak, jarduketaren xede izango diren eta alokairu babestua xede duten eraikinen jabeak.

Eraikinen eraikuntza-enpresak, energia-zerbitzuetakoak, errentariak edo emakidadunak, birgaitze-jarduketei ekiteko ahalmena dutenak.

Esku-hartzearen xede den eraikineko etxebizitzetako bat erabiltzeko eta aprobetxatzeko eskubidea duten pertsonak (jabeak, errentariak, gozamedunak, etab.) irisgarritasuna sustatzeko lerro bereziaren onuradun izan ahalko dira, 1. eta 2. lerroetan banakoak direnen baldintza berberetan.

### 2 ETXEBIZITZA

Nagusiki etxebizitza-erabilera duten eraikinak. Beste erabilera batzuetara bideratutako solairu osoak dituzten eraikinetan, finantza-neurriak etxebizitzetara bideratutako lokalei dagozkien jarduketei soilik aplikatuko zaizkie.

EIT egin beharko da eskaera formalizatu aurretik. Halaber, bertan identifikatutako patologia zuzendu izana eta Erabilera eta Mantentze Plana edukitzea, emandako dirulaguntza likidatu aurretik.

Familia anitzeko bizitegi-eraikinak, gutxienez 4 etxebizitza. 1980a baino lehenagokoak.

Araudiaren arabeko hirigintza- eta egitura-egokitzapenarekin.

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabeko gutxieneko bizigarritasun-baldintzekin (IV. eranskina). Gainera, honako gabezia hauek izan behar ditu: energia-efizientzia D kalifikazioarekin edo kalifikazio baxuagoarekin. Irisgarritasunaren kasuan, igogailurik ez izatea, irisgarria/erabilgarria ez izatea, edo bide publikotik zero kotako irisgarritasuna bermatu ezin izatea. Eta, gainera, DB-SI baldintzak ez betetzea eta/edo suteetatik babesteko detekzio- eta alarma-sistematik ez izatea.

### 3 OBREN AMAIERA

Baiespen-ebazpena jakinarazten denetik gehienez 30 hilabeteko epean amaitu beharko dira jarduketak.

# Finantza-neurrien arteko bateragarritasuna. Baita beste laguntza batzuekin ere

Aurreikusitako finantza-lerroak elkarren artean bateragarriak dira, 2. eta 3. lerroen erkidegoen obrenak izan ezik, bateraezinak baitira, irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntzen lerroa berezian izan ezik.

Bateragarriak dira, halaber, beste administrazio batzuetatik lor daitezkeen beste edozein laguntzarekin, administrazio horiek ere haien bateragarritasuna finkatzen badute.

Bateragarritasun hori aplikatuko da, baldin eta laguntza bateragarri guztien guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen diruz lagun daitezkeen jardueren kostua.

Hala ere, bateraezinak dira honako hauekin:

- EEEK kudeatutako PREE programa (Energiaren Euskal Erakundea)
- EGEFek edo Europako beste Egitura eta Inbertsio Funts batzuek kofinantzatutako beste edozein laguntza edo dirulaguntza
- Etxebizitzaren arloko jardun babesgarriengatik beste laguntza publiko batzuk, beste egitura-funts edo eraldatzeko aparteko funts batzuen bidez kofinantzatutako Europako programen esparruan, baldin eta aldi berean Eusko Jaurlaritzak parte hartzen badu.

# Nola eskatu laguntzak

Prozedura eskaera bidez hasiko da, eta eskaera hori beharrezko baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuekin batera aurkeztuko da, honela:

- Partikularren obretan eta erkidegoko laguntzetan, obrak hasi aurretik.
- Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretan, lizentzia eskatu aurretik.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta interesdunek, nahitaez elkargoko kide izan behar duten jarduera profesional batean dihardutenean, bitarteko elektroniko bidez egin beharko dute prozedura osoa. Pertsona fisikoek bitarteko elektronikoak edo aurrez aurrekoak erabili ahal izango dituzte. Dokumentazioa eskatzean eta aurkeztean bide bat edo bestea erabiltzeak ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideetan bide bera erabiltzera.

Eskaera bitarteko elektroniko bidez aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da.

Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>

Ebazpena 4 hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Administrazio-isiltasunak ezespren-ondorioak izango ditu.


# Galderak

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# **Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarriak**

2021eko iraila

*Euskadi, auzolana, bien comin*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO